The background of the entire page is a close-up photograph of a loom. Numerous threads of various colors, including red, orange, yellow, and blue, are stretched across the frame. The threads are organized into neat bundles and are held in place by wooden bobbins. The lighting is warm, highlighting the texture and vibrant colors of the threads.

AGENDA 2030 FOROA
LEGAZPIARROK GURE HERRIA
GARBI MANTENTZEKO DUGUN
KONPROMISOA

2021eko azaroaren 3an

AURKIBIDEA

AGENDA 2030 FOROAREN 1. SAIOA	3
Parte hartzaileak.....	3
Saioaren helburua eta kokapena	3
<i>Legazpiarrok gure herria garbi mantentzeko dugun konpromisoa</i> indartzeko ekintza proposamenak garatzen.....	4
<i>Legazpiarrok gure herria garbi mantentzeko dugun konpromisoa</i> indartzeko ekintza proposamenak lehenesten.....	5
Saioaren ebaluaketa.....	6

AGENDA 2030 FOROA - 1. SAIOA

Parte hartzaileak

Jarraian Azaroak 3an gauzatutako saioan elkartu ginen pertsonen zerrenda jasotzen dugu. Guztira, 13 lagun elkartu ginen eta Farapi Kooperatibako 2 kide egon ziren saioa dinamizatzen:

	IZEN ABIZENAK	ELKARTEA, ERAKUNDEA, NORBANAKOA
1	Xabier Arrondo	Garbiketako udal langilea
2	Manuel Fernández	Nagusilan
3	Sorkunde Uzkudun	Haztegi Ikastola
4	Iñigo Imaz	EAJ-PNV zinegotzia
5	Alonso Francés	Udal aparejadorea
6	Floren Gutierrez	Partikularra
7	Mikaela García	Nagusilan
8	Juan Pedro Agirre	Danantzako
9	Edurne Gonzalez	EH Bildu-ko zinegotzia
10	Juan Francisco Valbuena	Buztintegi
11	Edurne Ugarte	Ingurugelako teknikaria
12	Maite Lombide	Tokiko Garapen Iraunkorreko zinegotzia
13	Inma Hernandez	Tokiko Garapen Iraunkorreko teknikaria
14	Gabriela Renteria	Farapi Kooperatibako teknikaria
15	June Arechalde	Farapi Kooperatibako teknikaria

Saioaren helburua eta kokapena

Lehenik eta behin, Maite Lombide Udaletxeko Tokiko garapen iraunkorreko zinegotziak eta Inma Hernandez Tokiko garapen iraunkorreko teknikariak saioaren kokapena egin zuten eta prozesu honetan zehar landuko dugun gaiari heltzeko hainbat gako eskaini zizkiguten.

Horretarako, aurkezpen bat erabili zuten eta bertan Legazpin garbitasunaren gaiarekin gaur egun dagoen arazoaren inguruko adibide desberdinak partekatu zituzten; baita udalak orain arte martxan jarri dituen ekimen eta kanpaina desberdinen adibideak ere.

Azaldutako informazioa laburbilduz, esan dezakegu hau dela oinarritzkoa informazioa:

- ❖ Prozesuaren helburua: Legazpiarrok gure herria garbi mantentzeko dugun konpromisoaren inguruan kontzientzia hartu eta denon artean egoerari aurre egiteko ekintzak definitu.
- ❖ Gaiari heltzeko ideia gakoak:
 - Ez dugu aurrera egiten eta, pandemiatik aurrera, egoerak okerrera egin du.
 - “Ez da garbiagoa garbitzen duena, zikintzen ez duena baizik”.
 - Zer egin? Kanpaina txundigarriak, hezkuntza, isunik ez.
 - Egiten diren ekintzak gazte eta helduei ere zuzentzea, ez soilik haur eta gaztetxoei.
 - Eskolako Agenda 2030: urtero kaleak ez zikintzeko konpromisoa hartzen dute. Jarraipena egitea.
- ❖ Prozesuaren egitura eta iraupena:
 - Momentuz 2 saio egingo dira: gaurkoa (Azaroak 3) eta Abenduak 16an egingo dena.
 - 1. Saioan: gaiari heltzeko proposamenak garatuko ditugu eta gure ustez interesgarri eta egingarrienak direnak lehenetsiko ditugu.
 - 2. Saioan: aukeratu diren 2 edo 3 ekintzei forma emango diegu, hau da, proposamen zehatz batean bilakatuko dugu ideia hori. Horretaz gain, saio hauetan parte hartuko dugun pertsona eta eragileen artean ekintza hori aurrera eramateko koordinazioak, ardurak eta rolak banatuko ditugu, bakoitzak bere neurriko konpromiso bat asumituz.

Legazpiarrok gure herria garbi mantentzeko dugun konpromisoa indartzeko ekintza proposamenak garatzen

Lehenengo ariketa honetan ekintzak proposatu genituen, lehenengo maila indibidualean eta gero talde txikietan elkartuz, interesgarri edo egingarrienak zirenak aukeratuz, hala proposamen berriak sortuz. Azkenik, talde bakoitzak talde handian aurkeztu zituen bere ekintzak eta papelografo batean antolatu genituen ekintza motaren arabera eta hainbat ezaugarri amankomun kontutan hartuta.

Lehenengo maila indibidualean pentsatzeko tarte bat eman genien partaideei, zehazki, 5 minutu.

Bakoitzak bere ekintzak pentsatuta zituenean, lau pertsonetako taldeak egin genituen. Talde bakoitzak 15 minutu izan ditu bere taldekideen proposamenak entzun eta egokitu edo proposamen berriak sortzeko.

Azkenik, talde bakoitzak berea adierazi du plenarioan eta dinamizatzaileok papelografo handi batean jasotzen joan gara talde bakoitzak adierazitakoa.

Behin talde handian konpartituta, hurrengoak izan dira atera diren ideiak eta hauek partekatzen dituzten hainbat ezaugarri garrantzitsu:

EKINTZA PROPOSAMENAK	
1	Txutxe-dendei paperontziak eta bestelako bilgarri edo ontzi berrerabilgarriak ematea, denda inguruetan garbitasuna sustatzeko (adibidez, pipa-azalak botatzeko ontziak ematea) (2 taldek aipatu dute)
2	Kontsumo ohituretan eragin eta jendeak, plastikozko xorro eta ontzi gutxiago erosi eta erabili ditzan bultzatu. (2 taldek aipatu dute)
3	Udalak espazio jakin batzuk aldi jakin baterako garbitzeari uztea eta komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainetako ekintza horiekin batera joatea, jendea arazoaz jabetu dadin. (2 taldek aipatu dute)
4	Ikastetxeak eta udalerriko espazio eta eraikin publikoak (elkartek, kirol-klubak, etab.) erabiltzen dituzten beste eragile batzuk hondakinen bilketan eta hondakinen sorreraren prebentzioan inplikatzeko.
5	Kaleak zikintzen dituzten pertsonen isunak jarri beharrean, herriko gune zehatzetan hondakinak biltzen diren egunetan inplikatzeko.

Edozein proposamen baloratu edo gauzatzeko orduan kontutan izan behar diren hainbat ideia gako:



Garbiketaren arazoa, batez ere, herriko toki zehatzetan dago. Horregatik, egiten diren ekintzek gune horietan jarri behar dute arreta.




15 eta 30 urte bitarteko pertsonengana iristeak dakarren erronkari heldu behar zaio.



Pertsonen erantzukizuna eskatzea.

Legazpiarrok gure herria garbi mantentzeko dugun konpromisoa indartzeko ekintza proposamenak lehenesten

Ariketa honetan talde bakoitzak proposatutako ekintzak eztabaidatu eta neurri batean osatu edo ñabartu ondoren, partaide bakoitzak bere ustez lehenetsi beharko lirartekeen bi ekintzak aukeratu zituen. "Bozka" prozesuaren ondoren hauek izan ziren emaitzak:



Partaideen arteko, eztabaida, eman eta gero eta ekintza bakoitzaren bideragarritasuna eta egingarritasuna kontutan hartuta hauek izan ziren hurrengo saioan garatzeko aukeratu ziren ekintzak:

1. Txutxe-dendei paperontziak eta beste bilgarri edo ontzi berrerabilgarri batzuk ematea, denda-inguruetan garbiketa sustatzeko (adibidez, pipa-azalak botatzeko ontziak ematea) (2 taldek aipatu dute).
2. Udalak espazio jakin batzuk aldi jakin baterako garbitzeari uztea eta komunikazio-eta sentsibilizazio-kanpainetako ekintza horiekin batera joatea, jendea arazoaz jabetu dadin. (Taldek esan dute)

Bazegoen hirugarren ekintza bat, bozka dexente jaso zituena, baina epe ertain-luzean garatzeko modukoa dela baloratu zenez azkenean aukeratu gabe gelditu zena. Zehazki, ekintza hurrengoa zen: ikastetxeak eta herriko beste elkarteak hondakinen eta espazioen garbiketan inplikatzera, alegia.

Behin ekintzak aukeratuta, hurrengo saioa hauek garatu eta forma zehatz bat ematean zentratuko gara.

Saioaren ebaluaketa

Gaurko saioaren ebaluaketa egiteko gutako bakoitzak saioa edari batekin konparatu zuen, hau da, *“Gaurko saioa edari bat izango balitz, zein edari izango zen zuretzako?”*.

Erantzunak oso anitzak izan ziren: kafe ebaki goxoak, kriantzak izatetik gertu zeuden urteko ardoak, garagardo fresko freskoak...denetarik egon zen! 😊

Mila esker guztioi saioan egoteagatik eta espero dugu hurrengoan ere elkar ikustea! 😊

PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA

